

EUSKAL GATIBUAK ETA MUNDU ISLAMIARRA

(XVII. eta XVIII. mendeetan)



AURKIBIDEA

Laburpena	3
1.-Sarrera	4
2.-Testuinguru historiko-geografikoa	6
3.-Nortzuk ziren bahitzaileak?	9
3.1.-Gatibuei ematen zieten tratua	12
4.-Nortzuk ziren euskal gatibuak?	14
5.-Nortzuk ziren gatibuak askatzeko bitartekariak?	15
5.1.-Gatibuak berrerozteko urratsak	18
6.-Nork eta zergatik jartzen zuen gatibuak askatzeko dirua?	19
6.1.-Nola antolatzen ziren euskal itsasgizonak beren buruak babesteko?	24
7.-Ondorioak	26
ERANSKINAK	29
BIBLIOGRAFIA	32
ITURRI DOKUMENTALAK	34

LABURPENA

Aro Berriko gizarteko partaideek bazekiten itsasoko bideetan ibiltzen zirenek (itsasgizon, soldadu, merkatari eta edozein bidaiari) ekaitzek eragindako arriskuei aurre egiteaz gain, kortsario turko-berberiarren esku erortzeko arriskua zutela. Hori dela eta, gatibutzatik askatzeko bildu behar zen dirua lortzeko hainbat bide erabili zituzten: testamentuetan beren-beregi errukizko obren bidez gatibuen berrerosterako emandako dohaintzak, aberats eta jauntxoek eratutako patronatuen bidezko maileguak, ordena berrerosleen limosnak, norbanakoen dohaintzak eta beste. Kasu batzuetan, gatibuak askatzeko ekinaldiek norbanako, agintari eta ordena berrerosleen lankidetzak eskatzen zuten. Gatibuak hainbeste izanik, hurkoek eta erkideek nahi izaten zuten tokian bildutako dirua lehentasunez erabil zedila tokiko gatibuak askatzeko. Horrela, euskal jatorriko itsasgizonen anaidiek beren erkideenganako elkartasunez jokatzeko zuten.

Kortsario turko-berberiarren eskuetan erortzeko ikara oso hedatua egon zen Euskal Herri osoan. Zinezko arriskua desagertu eta beranduago ere, ordena berrerosleak limosna eta oinordekotzetako dohaintzak jaso izanak erakusten duenez.

Hitz gakoak: *gatibu, XVII. eta XVIII. mendeak, berrerosi, kortsario turko-berberiar*

1.-Sarrera

Kartzelatik atera berritan, azterketa-lan honen gaia aipatu nionean, anaiak ondorengo gertaeraren berri eman zidan.

Joan den mendeko 90etako hamarkadan, Artzibarreko parroko don Tomasek bere homilian euskal preso politikoen alde laguntza ematera adoretu zituen eliztarrak. Horretarako, Artziko jauna jarri zien adibidetzat, zeinak, don Tomasen hitzen arabera, bere burua eskaini omen baitzuen *mairuek* gatibu zituztenekin trukean emateko.

Guk ez dugu aurkitu horrelako prozedura gertagarri izan zitekeenik aditzera ematen duen dokumenturik. Aztergai dugun garaian, eta pentsatzekoa da lehenago ere, pertsonen truke bakarra gatibuen artekoa izaten zen; nahiz eta fraide Mesedetakoen botoen artean beren burua gatibuak berrerosteko trukean ematea ere bazuten. Eskuarki, diruaren eta bestelako ondasunen truke lortzen zuten bahituek askatasuna.

Pentsatzekoa da pasarte hori denboraren iragaiteak itxuraldatuta iritsiko zela Artzibarko parrokoaren belarrietara eta, ondorioz, geureetara. Baina, garrantzia duena zera da, gaurdaino iritsi dela Erdi Aroan hasi eta Aro Berrian oso berandu arte Euskal Herrian oso ohikoa izan zen gertaera baten oihartzuna: alegia, kortsario turko-berberiarrek euskal gatibuak izan zituztela.

Oihartzuna iritsi izanari bezainbesteko garrantzia ematen diogu ere, berria Nafarroa Garaiko iparraldetik etortzeari, hau da, euskal kostaldetik urrun. Hain zuzen ere, hori ere ikusiko dugu lan honetan: gatibuena ez zen izan euskal kostaldeko herrietara mugatzen zen kezka, baizik eta Euskal Herri osoan, itsasbazerretik barnealderaino, hedatuta egon zen izu egoera. Beraz, Erdi Aroz geroztik eremu europar eta kristauan hedatua egon zen kortsario turko-berberiarrenganako beldur eta kezka horren estalkiak bere baitan hartuak zituela XVII. eta XVIII. mendeko Euskal Herriko biztanleak ere.

Baina, Artziko jaunaren ustezko eskaintzaren oihartzun horrek beste zerbait ere erakusten digu: gatibutzan eroritakoak askatzeko elkartasun jokabidea. Norbanakoek testamentuetan gatibuak berrerosteko dohaintzak ematen zituzten, tokiko agintariak gatibuak askatzeko ekimenak bideratzen zituzten eta itsasgizonak elkarkidetzaz

anaidietako funtsak eskaintzen zituzten. Beti ere lehentasuna emanaz tokiko gatibuak askatzeari.

Bestalde, Euskal Herriko herri hizkeran gaur arte gorde da orduko gertaerek eta giroak sortua izan daitekeen arrastoa: Zuberoako Pettarran eta Behe Nafarroako Amikuzen haize zirimola edo erauntsiari *mahometa* edo *maometa* deitzen zaio eta Zuberoako Arbailletan aldiz *bahumeta* (EHHA).

Ez dakigu noizkoak diren gaur arte bizirik iraun duten izendapen horiek. Badakigu ordea haize zirimola deabruarekin parekatzen den zerbait txartzat hartzen dela. Beraz, barnealdeko eskualde horietan deabruaren sinonimotzat erabili zuten musulmanen profetaren izena. Musulmanek edo, zehazkiago, turkoek utzitako beste arrasto bat ageri da *türkak* eta *girstinoak* aurrez aurre jartzen dituen Zuberoako pastoraletan. Honek aztergai dugun gaiari zeharka ukitzen dionez, eranskin batean bildu ditugu egindako ikerketa xumearen emaitzak (ikus eranskina)¹

Elementu horiek sarrera honetara ekarri ditugu orain hain ezezaguna zaigun gaiak garai haietan Euskal Herriko gizartean izan zuten indar handiaren oihartzun izan daitezkeelako.

Honela egituratu dugu azterlana:

- aurrena, ikusiko dugu zein testuinguru historikotan hartu zituzten gatibu kristauak bahitzaile musulmanek;
- ondoren, gertakari horien protagonistak nortzuk ziren aztertuko dugu: bahitzaileak, gatibuak eta hauen askatasuna lortzeko obratzen zuten bitartekariak;
- jarraian, erakundeek eta oro har gizarteak, zer nolako ekimenak bideratzen zituzten haien askatasuna lortzeko, eta euskal itsas-gizonek egoeraren aurrean zer neurri hartu zituzten.

Amaitzeko azterlanaren ondorioak eskainiko ditugu.

¹ Gai zehatz honi buruzkoak sakontzeko eta Eranskin hori osatzeko, Xarles Bidegain euskaltzainak eman zizkigun hainbat arrasto berarekin egindako ahozko kontsultetan 2019ko uztailean.

2.-Testuinguru historiko-geografikoa

Aztergai dugun garaian eta ingurune geografikoan bi eragile nagusi nabarmenduko ditugu: batetik, agintea Amerika eta Asiara hedatua zuen monarkia espainiarra, zeinak Amerikako bere jabetzekin monopoliozko merkataritza-sistema zurrun bat antolatu baitzuen. Sistema horretako gune nagusi eta, hasiera batean, bakarra Sevillako portua izan zen eta, ondoren, Cadizekoa. Bestalde, kortsarioen erasoetatik babesteko, itsasontziek konboiean egiten zituzten joan-etorriak. Sistema horren helburua monarkia espainiarraren merkataritza lehiakideengandik eta kortsarioengandik babestea zen, itsasontzi guztiak Kontratazio Etxetik pasatzera behartuz. Baina, XVII. menderako argi zegoen monopolio hori ustezkoa zela, estatu lehiakideek beste bide batzuk baliatzen zituztelako Amerikarekiko merkatu harremanen onurak bereganatzeko. Gainera, Ondorengotza Gerraren ostean (1701-1712), ordura arteko Frantziarekiko aurkakotasuna aldatu egin zen, eta Ingalaterrarekin sinatutako Utrechteko Hitzarmenaren ondoriozko aldaketekin, merkataritza espainiarraren gaineko eragina atzerritarren menpera igaro zen. Horri aurre egiteko hainbat aldaketa eragin zituzten ordura arteko sisteman (Amores, 2006: 406-412).

Bigarren eragile nagusia, Otomandar Inperioak eta bere jarraitzaileek (Tripoli, Tunisia, Aljeria, Tetuan eta Sale hiri-estatuak) osatutakoa zen; Afrikako, Asiako eta Europako lurralde batzuk ere beren eraginpean zituztenak. Jabetza eta eragin horretan oinarrituz, Sultan boteretsua Mahomaren ondorengo gisa agertzen zen. 1453an Konstantinopla galtzea kristaudentzako kolpe gogorra izan zen, eta nahiz eta 1571ko Lepantoko gudaldian otomandarrak garaituak izan eta ondorioz kristauak gailendu Mediterraneon, kortsario turkiarren eta berberiarren erasoak ez ziren horregatik eten. Kristauek musulmanak harrapatzen ere zituztenez, alde bateko eta bestekoen etengabeko erasoaldi horien ondorioz, milaka eta milaka esklabo saldu ziren kristauen eta musulmanen merkatuetan. Hartara, aztergai dugun garaian, XII. mendean eraturako fraideen ordenak esklabo hartutako gatibu kristauak berrerosteko misioak antolatzen jarraitu zuten (Azpiazu, 1997: 30; Delumeau, 1989: 405; Bennassar eta Bennassar, 1989: 21).

XVII. mendean, Lepantoko gudaldiaren ostean, Otomandar inperioak Viena eskuratzeko asmoz lurretiko erasoekin jarraitu zuen, bertan behera utziz Espainia eta

Italia itsasoz erasotzeko asmoa. Ekialdeko Mediterraneoan kristautentzat inbasio arriskua desagertu bazen ere, agintari musulmantzat, kortso bidezko erasoak egitea bihurtu zen helburu nagusi (Heers, 2003: 16).

Orduan lortu zuten kortsario turko-berberiarrek beren eragin-gunea Atlantikora hedatzea. Prozesu horren oinarrian bi gertaera nabarmendu daitezke: batetik, moriskoen kanporaketa; bestetik, Ipar Afrikako kortsarioek lortu zuten aurrerapen teknikoa. Moriskoei dagokionez, haienganako mesfidantzagatik, aurrena Granadako Erreinutik egotzi eta Penintsulan sakabanatu zituzten (Euskal Herrira iritsi gabe), kostaldetik urrun kokatuz ez zezaten ihes egin eta ez ziezaieten laguntza eman berberiarrei. 1610ean Penintsulatik behin betirako kanporatu zituztenean, Saleko Errepublikan antolatu ziren batez ere eta Arjel bihurtu zen moriskoen kortsoaren babesle nagusi (Martínez Crespo, 2017: 230-239).

Aurrerapen teknikoei dagokionez, XVII. mende hasieran Monarkia espainiarraren eta Ingalaterra eta Holandaren arteko gatazka baretu zenean, nazio horietako kortsarioek Gibraltarko itsasartera jo zuten eta itsasontzi egokiagoak egiteko laguntza eman zieten geroago beren lehiakide bihurtuko ziren turko-berberiarrei. Itsasontzi berri horiei esker lortu zuten eguraldia txarra zenean ere nabigatu ahal izatea eta Indiako Ontzidiak erabiltzen zituen itsasbideetan ere aritzea (Martínez Crespo, 2017: 230-239).

Beraz, teknika eta taktika aldaketari gehitu zitzairen moriskoen Andaluzia eta Levanteko kostaldean ezagutza eta Gibraltarko itsasarte gaintzea. Espainiarrek Marokoren Atlantiko isurialdeko kokaguneei eraso egin bazieten ere (Laratxe 1610, La Marmora 1614), Gibraltarretik gertu kokatuta zegoen Saleko Errepublikan bildutako moriskoek, Arjelgo otomandarrek eta holandar arnegatuek Ameriketatik zetozen ontzidiak zelatatzen zituzten (Martínez Crespo, 2017: 230-239).

Horrela, XVII. mendera arteko Atlantikoko kabotaje nabigazioa gaintu eta helburu berrien artean Portugalgo itsasbazterra, Atlantikoko irlak (Madeira, 1617an eraso zuten) eta baita urrunagokoak ere jarri zituzten ituan (1627an Danimarka eta Islandia eraso zituzten, eta 1630ean eta 1631n Mantxako kanalean ibili ziren eta Irlanda eta Ingalaterrako kostaldetako herriei egin zieten eraso, gizon, andre eta haurrak bahituz), Ternuaraino ere iritsiz arrantzaleak bahitu asmoz. Horrela, kortsario turkiar eta

berberiarrentzat ogibide emankor bihurtu zen itsasontzietan zihoazenak gatibu hartzea, espainiarren merkataritza oztopatzera iristeraino. Bi irabazi zituzten: doaneko eskulana eskuratzen zuten, landarako, eraikuntzarako, galeretan arraun egiteko edo zerbitzari gisa aritzeko, irabazpide nagusi zuten gatibuen askatasunaren bahisaria iritsi bitartean. Adituen datuen arabera, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan Berberian guztira milioi eta erdi gatibu gordetzera iritsi ziren² (Harresi, 2014; Martínez Crespo, 2017: 230-239).

Testuinguru horretan, musulmanekiko harreman zuzena zegoen kristauen eskualdeetan beldurra nagusi zen. Baina beldur hori hedatu egin zen arduradun erlijiosoen eraginez kontakturik ez zegoen eskualdeetara. Sermoietan *fedegabeen* krudeltasunaren berri ematen zutelako eta turkiarren aurkako mezak ospatzen zituztelako, gatibutuen eta askatzeen berriak hedatzearekin batera (Delumeau, 1989: 415-417).

Dena dela, XVIII. mendean kortsario turko-berberiarren gainbehera hasi zen eta XIX. mendean europar protektoratuen ezarpenak eta Inperio Otomandarra Mediterraneo mendebaldetik erretiratzeak beren babesak galarazi eta amaiera eman zien haien ekinaldiei (Martínez Crespo, 2017: 230-239).

Hala ere, mende guzti horietan bizitakoak arrasto sakona utzi zuen bai jendearengan eta bai instituzioetan, eta gatibuen errealitatea presente egon zen arriskua desagertuta ere. Hori erakusten du Fernando VII.aren 1815eko Errege Agindu batek, gatibuen ordena berrerosleei beste hamar urtez limosna eskatzen jarraitzeko baimena eman baitzien³.

Beraz, guzti honen argitan esan daiteke XVIII. mendera arte gatibuen errealitatea eta beren berrerosketarena garaiko gizartearen eta jendearen eguneroko bizitzaren parte izan zela. Aurrerago, berrerosketa misioen inguruan antolatzen zen prozesu guztiaren berri xeheago ematerakoan, argiago ikusiko dena (Ruiz Barreras, 2006: 846).

Berez, Euskal Herria geografikoki Mediterraneotik urruti egonik ez da ezagutzen kortsarioek euskal kostaldeko hiriei eraso egin zietenik, nahiz eta ikusi dugun bezala

2 Gatibu kopuru handiak zeudela berresten du Diego de Haedoren kronikak: XVI. mende bukaeran Arjelen eskuarki 25.000 gatibu egoten ziren (González Castrillo, 2011: 269).

3 Bizkaiko Diputazioko Artxibo Historikoa (BDAH), Bilbao Antigua 0283/001/054.

beren erasoekin oso iparrera iritsi ziren. Oso gutxi izanda ere erasoak Euskal Herrian bertan gertatzen zirela agerian uzten du Mesedetakoek 1723, 1724 eta 1725 urtetan Arjelen eta Tunisian zeuden gatibuen eroldari buruz Bucciantik egindako ikerketak: 1.069 gatibuen artean batek bederen adierazi baitzuen Euskal Herrian harrapatu zutela (Buccianti, 1997: 66-68; Martínez Crespo, 2017: 231; Harresi, 2014).

Guztiarekin, XVII. mendeko testigantzek diote Kantabria aldean zebiltzala eta Bizkaian ura eta egurra biltzeko toki finkoak izateaz gain Bermeoko itsasontziei eraso egiten zirela. Ez dago ordea Gipuzkoako kostaldeari buruzko erreferentziarik (Harresi, 2014).

Gauzak horrela, kortsario turko-berberiarren eskuetan gatibu erortzen zirenek, askatasuna berreskuratu nahi bazuten ordaindu behar izaten zuten, ez bazuten hil artean bahituta eta esklabo gelditu nahi. Horretarako, senideek eskuin-ekzker dirua bildu behar izaten zuten, ahal zituzten ate guztiak joz. Are gehiago marinel txiroen kasuan. Hauentzat irtenbide bakarra gatibuen berrerosteaz arduratzen ziren ordenak izan ohi ziren. Beste batzuek, senide eta lagunen dirua bildu behar izaten zuten, zorpetuz (Azpiazu, 2005: 34).

3.-Nortzuk ziren bahitzaileak?

Mediterraneoan, pirata edo kortsarioen presentzia oso antzinakoa izan da, Antzinaroko egile greziarrek aipatzen baitzituzten. Berberiarren⁴ itsasoko erasoiei dagokionez, Erdi Aroan hasi ziren eta XVI. mendean iritsi ziren goren puntura. Berez, *pirata* izendapena mendebaldeko historiografian erabilitakoa da, arabiar iturrietan apenas agertzen delarik. 1614ko La Marmorako Garaipena⁵ arte ez zen inongo idazkitan agertu, eta une horretatik aurrera espainiarrek beren aurkarien izena zikintzeko erabili

4 “Berberiar” izendapena ez litzateke zuzena, aztergai dugun garairako gobernu eta kortsarioak ez baitziren Afrikako mairuak, baizik eta gehientsuenak turkiarrak edo kristau arnegatuak (Heers, 2003: 5).

5 La Marmorako Garaipena espainiarrek 1614an egindako erasoaldi bati ematen zaion izena da. Eraso horrekin, herbeheretarrek saadiarrekin zituzten harremanak oztopatu nahi izan zituzten, Hamabi Urteko Tregoa indarrean egon arren portu horretan kokatzeko asmoz baitzebiltzan espainiarren aurka errazago egiteko. San Miguel de Ultramar izena jarri zioten espainiarrek eta eraso asko jasan eta gero 1681a arte egon zen beren eskuetan. Marokoko Ismail sultanak eskuratu zuenean, gaur egun duen Mehdia izena eman zion.

zuten. A. Toussaint-ek dio pirateria betidanik egon den zerbait izanik, kortsoa XVII. eta XIX. mendeen artean soilik egon zela (Quintana Moraira, 2009: 3-9).

Bestalde, J.L. Azcarragak kortsarioen eta piraten arteko bereizketa egiteko erreferentzia juridikoak ematen ditu (Quintana Moraira, 2009: 4-5): Kortsarioak bere gobernuaren baimena espresuki behar zuen (patentea); baimena eskuratzeko bermea eman behar zuen bere ekinetan egin zitzakeen gehiegikeriei aurre egiteko; harrapakinak epaitegi berezi baten eskuetan utzi behar zituen; eta etsaien ontzietan soilik eraso egin ziezaiekeen. Aldiz, piratak ziratekeen ondasunak lapurtu eta pertsonak hil edo bahituko zituzketen itsasontzi bateko eskifaiako kideak edo bidaiariak. Gainera, merkataritzaren segurtasun orokorrerako izan behar ziren mehatxu eta egintzak itsaso zabalean eginak izan behar zuten, inongo Estaturen jurisdikzioaren zigorrari ihes egiteko. Beraz, estatu baten parte hartzeak bereizten ditu bi hitzak. Hartara, D. Panzac-entzat, kortsoa Magrebek Estaturen aurka gerra militarra egiteko modu bat zatekeen (Quintana Moraira, 2009: 3-9).

Beraz, turko eta berberiarrek ez ziren piratak, Afrika iparraldeko Arjelgo, Tunisiako eta Tripoliko hiri-estaturen gainbegirada eta arauen menpean aritzen baitziren. Moro eta turko deitzen zieten ere. Moroak Afrika Iparraldekoak izanik, gehiengoak; turkiarrek, aldiz, Arjelgo klase agintaria osatzen zuten eta aspaldiko turkoen edo turko estatusa lortu zuten arnegatuen ondorengoak ziren⁶ (Buccianti, 1997: 62; Martínez Crespo, 2017: 234).

Esan bezala, kortsario turko-berberiar horien artean bazebiltzan ere jatorriz kristau izandakoak eta beren erlijioaz arnegatu zutenak. Horietako batzuk borondatez jarri ziren Afrika Iparraldeko agintarien zerbitzura; beste batzuk ordea, gatibutzatik askatzeko hartu zuten erabakia, galeretako lanari ihes egiteagatik edota arnegatuei eskaintzen zieten bizimodu erosoagatik edota menpean zeuzkatenen amarruengatik edota, batez ere Konstantinoplan bahitutakoek, berrerosleen bidez askatasuna lortzeko esperantzarik ez zutelako. Jakinduria teknikoa zuten arotz, itsasgizon, soldadu eta abarrei, jabe edo agintariak proposatzen zieten beren fede kristaua arnegatu eta islamaren sinesmenera alda zitezela. Baziren ere ihes egiteko bide bezala arnegatu ostean kortsarioan aritu zirenak. Ihes egin ondoren Inkisizioaren aurrean aurkeztu behar

⁶ Lan honetan aipagai ditugun euskal gatibuen bahitzaileak izendatzeko *kortsario turko-berberiar* izendapena erabiltzea hobetsi dugu.

zuten beren burua, apostasia bekatua barka ziezaieten. Gatibuek arnega zezaten presio egiteko modu eraginkorra izaten zen haiek berrerosteko salneurri oso altua jartzea edota berrerosteko saioei uko egitea: horrela, bizitza osorako esklabotasuna edo Berberriako eliteko partaide izateko aukera jartzen baitzieten hautabide (González Castrillo, 2011: 270-271; Harresi, 2014; Martínez Crespo, 2017: 230).

Orduko gizarte musulmanak kristauak baino irekiagoak ziren, eta jaiotzari baino gehiago begiratzen zioten norberaren balioari eta ausardiari. Horregatik, musulman bihurtzea kristau eta esklabo izatearen mendekotasunetik ateratzeko modua izan zitekeen, atzerritarrekiko abegikor zen gizarte batean txertatuz. Horretarako zeremonia erraza zen, eskuin eskuko hatz erakuslea zerurantz hirutan eramanez “La ilaha illa Allah Mohammed rezul Allah”⁷ esan behar baitzuen arnegatu nahi zuenak (Bennassar eta Bennassar, 1989: 21-22, 350).


Diego de Haedo bizkaitarraren⁸ 1609ko kronikan agertzen da Arjelgo arnegatuak Europako herrialde guzti-guztietakoak eta “moro, turko eta juduak elkartuta baino gehiago” zirela. Batez ere Europako, baina baita Asia, Amerika eta Afrikako eskualde batzuetako berrogeita hamalau jatorri desberdin aletzen dituen zerrendan, bizkaitarrak eta nafarrak ere ageri dira. Haedok dio esklabo izatea maite ez zutenek eta libre bizitzea eta “turkoen bizioak” maite zituztenek onartzen zutela “benetako Jainkoaren bidea uztea”. Musulmanen fedea onartzen zuten modua ere kontatzen du: festa bat egiten zuten eta bere nagusiaren eta lekukoen aurrean halakoetan trebatuta zegoen judu batek erdaintzen zuen arnegatua, ingurukoek Ala eta Mahoma goresten zuten bitartean (Haedo, 1609: 10).

Milaka arnegatuk osatzen zuen janizarien guardia eta bestela itsasontzietako *arraez* edo kapitain eta bestelako karguak izaten zituzten, eta beraiek izaten ziren

7 Ala da Jainko bakarra, eta Mahoma bere mezularia.

8 1527an Karrantzako Ahedo herrian jaio eta Palermoko artzapezpikua eta Siziliako Erreinuko Kapitain Nagusi izan zen. “Topographia e Historia general de Argel” idatzi zuen, hiri horren deskripzio xehe-xehea eta joria eginez. Bere izen bereko iloba Diego de Haedo agertzen da idazlanaren egiletzat, osabak gatibuen testigantzetan oinarrituta idatzi zuen zirriborroa erabili baitzuen itxuratu eta argitara emateko (osabari eskainita dago liburua). Ikertzaile batzuk zalantzan jartzen dute egiletza, ez baitzen inoiz Arjelen egon. Uste dute bertan gatibu eduki zituzten Antonio de Sosa beneditarra edo Miguel de Cervantes direla liburuaren atzean daudenak; bigarrena hamar urtez eduki zuten gatibu eta bere zenbait idazlanetan islatu zuen han bizitakoa, ezagunena “Los baños de Argel” (Estornes, 2019; González Castrillo, 2011: 267, 269).

kristauak gogorkien zigortzen zituztenak ere. Agerikoa denez, maiz fedez aldatzea ez zen izaten sinesmen kontua (González Castrillo, 2011: 270-271).



Askotan, arnegatuak itsasontziko kapitain izaten ziren, eta eskifaia Espainiatik kanporatutako moriskoek osatzen zuten. Berberiarrek Mediterraneoan aritu ziren bitartean Salekoak Atlantikoan ibili ziren Amerikatik itzuleran zihoazen itsasontzi espainiarrei eraso eginez (Harresi, 2014).

Kortsario turko-berberiarren helburua itsasontzietako bidaiariak eta kostaldeko populazioaz eta balioa zuen oroz jabetzea zen. Esklabo gisa erabiltzeko askatasuna erosteko dirua iritsi bitartean. Horretan desberdina zen kristauak gatibu musulmanei ematen zieten tratuarekiko, gehienak galeratan arraunean jartzen baitzituzten eta oso gutxitan ematen zieten askatasuna erreskate baten truke (Buccianti, 1997: 63).

3.1.-Gatibuei ematen zieten tratua

Gatibuek denbora luze eman zezaketen beren bahitzaileen eskuetan. Eta, batzuetan, bizi-baldintza txarren ondorioz berrerosko dirua bildu aurretik hil zitezkeen. Edo, esan bezala, gerta zitezkeen ere musulman bihurtzea tarte horretan, jasandako tratuengatik edota beren egoera hobetzeko, salbatuko zituzten esperantza oro galdua. Gatibutza jasaten zutenek gutun bidez beren egoeraren berri ematen zuten, errukituta diru-bilketa azkarrago egin zedin (Azpiazu, 1997: 33-34).

Bahituak zirenetako batzuk ordea Konstantinoplara eramaten zituzten. Hango gatibuen bizitza hobea zen, Afrika Iparraldekoak ez bezala bainuetatik ateratzeko aukera baitzuten, zenbait lanbidetan aritzeko. Baina, Konstantinoplara saldua zirenek erreskatatuak izateko askoz ere aukera gutxiago zeukaten, berrerosleek misioak ez

baitziren hara antolatzen. Hartara, askatasuna berreskuratzeko modu bakarra epaile batek finkatutako ordaina lanaren bidez lortzea zuten. Edo ihes eginez. Eta horretarako aukerak hobeak ziren Konstantinoplan Afrika Iparraldean baino. Beraz, esklabo hartutakoaren gatibualdia eta etorkizuna jabearen arabera izaten zen (González Castrillo, 2011: 267-268).

Modu batez ala bestez, asko ziren ihes egiten saiatzen zirenak. Kristauek kortsario musulmanen tratu gizagabea nabarmentzen zuten, tresneria berezia erabiliz kolpatu eta sufriarazten zituztela salatuz, eta ihes egiten saiatzeagatik paldoaren tormentua edo zintzilikatzea edo bizirik erretzen zituztela ere. Adibidez, 1668an berrerosi zuten Agustin Etxeberriakoak eskua galdu zuen ihesaldi saio batean. Frantzisko Altxakoak kontatu zuen nola bahitu ostean Arjelera eramane zuten eta gogor lan eginarazi zioten, bizitza bera arriskuan jartzeraino (Moya, 2019: 160; Azpiazu, 2005: 37).

Diego de Haedok *Topographia e Historia general de Argel* kronikan gatibuek Arjelgo bainuetan jasandako tratu ankerraren lekukotasun aberatsa eskaintzen du, Antonio González de Torres San Juan ordenaren zalduna eta haren lagun Sosa doktorearen arteko elkarrizketaren bidez. Sosak irakurketa zorrotza egiten du gatibuek bizi zuten egoeraz, munduko egoerarik krudel eta inhumanoena zela esanez, esklabotza ondasun guztiak galtzea delako eta ondasunetan preziatuena, askatasuna, gizaki egiten gaituena. Haedoren kronikak kristau irakurleei erakusten die zein egoera penagarrian bizi ziren gatibuak Berberian, animalien pare eta “turko mozko”, “mairu doilor” edota “arnegatu zikinen” esanetara, gizatasuna eta norberarenganako begirunea galtzeraino. Goseak eta miseriak desitxuratu eta argalduta, ordura artekoa baino are gogorragoa zen mundu batera jaiotzea bezala deskribatzen du gatibutza: heriotza desiragarria den mundu bat. Ondoren, gatibu kristauek galeretan jasotzen zuten tratu krudelaren berri zehatza ematen du, jan eta edan gabe eta kortsario turko-berberiarren zigorkaden eta krudelkerien menpe, mutilazioak eta heriotzarainoko zigorkadak jasoz (Haedo, 1609: 96-118).

4.-Nortzuk ziren euskal gatibuak?

Kristauak *gatibu* deitzen zieten kortsario turko-berberiarrek bahitzen zituztenei. *Gatibu* izendapenak diruz erosiko zen askatasunaren esperoan zeudela ematen zuen aditzera (Azpiazu, 1997: 30-31).

Kortsario musulmanek itsasontziei egindako erasoaldiaren ostean bizirik zeudenak bahitzen zituzten eta itsasontziaren kapitainaren (*arraez*) eta kanpainarako dirua jarri zutenen jabetza bihurtzen ziren. Agintariarentzat ziren botinaren % 10 eta gatibu hartutako soldaduak. Eta gainontzeko gatibuak esklabo gisa saldu egiten zituzten Arjelen edo beste hirietako esklabo-merkatuetan (Harresi, 2014). Euskal gatibuak ziren Euskal Herria eta Sevilla arteko joan-etorrietan edo Euskal Herria eta Amerika arteko itsas-bidaietan⁹ ontzietan bidaiatuz kortsario turko-berberiarren eskuetan erortzen ziren herritarrak (Azpiazu, 2005: 29).

Gogotik kendu behar da kostaldeko herrietakoak zirenik Berberian gatibu hartzen zituztenak, barnealdekoak ere izaten baitziren. Gainera, euskal herritarren kasuan, Espainiaren erreinuaren menpeko euskal biztanleak bezala hartzen zituzten gatibu Frantziaren menpeko euskal lurraldeetako biztanleak. Beraz, ez zen eskualde zehatz bati eragiten zion auzia, baizik eta orokorra.

Adibidez, 1634an trinitarioek kristau talde batekin batera Tunisian berrerosi zuten Donibane Lohizuneko Claude Truche, eta 1638an, trinitarioek ere Tunisia bertan berrerosi zuten Bertrand Despal baionarra. Bordeleko Mesedetakoek Jean Doyennard zuberotarra eta Jean d'Archemguiber baigorriarra berrerosi zituzten Arjelen. Kostaldeko herrietakoak ziren gatibu egondako Gaspar Martinez mungiarra (1649) eta Juan de Avellaneda portugaletarra (1682), baina barnealdekoak trinitarioek 1649an eta 1662an hurrenez hurren askatu zituzten Pedro Etxeberriakoa durangarra eta Jose Gesalakoa arratiarra (Anaut, 2019).

Eta, noski, euskal gatibuak maila sozial guztietakoak ziren, bai diruz molda zitezkeen kapitain edo merkatariak eta baita marinel txiroak, umezurtzak edota familiaren mantenua beren kargu zutenak (Azpiazu, 2005: 36).

⁹ Euskal kostalde inguruan erasoak egin bazituzten ere, ez dago beste eskualde batzuetan egin zuten bezala (Galizia, Britainia, Ingalaterra,...) herriren bati eraso egin eta bertako biztanleak, berdin gizon, andre zein haur erreskatea eskuratzeko bahitu zituzten daturik (Harresi, 2014; Martínez Crespo, 2017).

Hori dela eta, askotan, hurkoek ez zuten izaten gatibuak askatzeko Berberiako agintariek eta esklaboen jabeek eskatzen zuten bahisaria ordaintzeko diru aski, eta urte luzeak eman behar izaten zituzten gatibutza. Itsasontzian zihoazenen maila sozialaren aldeagatik, gerta zitekeen ere une berean gatibu erori eta batzuk askatasuna lortzea eta besteak ez, gatibu bakoitzaren etorkizuna agintariek ezarritako salneurriaren arabera baitzen. Hori gertatu zitzaion, adibidez, 1637an preso hartu eta bost urtez gatibu zeramatzan Joanes Aranibarrekoari, bere askatasuna lortzeko eskatu zioten dirua ezin bildu zebilen bitartean, berarekin harrapatutako batek askatasuna eskuratu zuelarik. Horregatik, bere gurasoek gatibuak askatzeko errukizko obren laguntza eskatu zuten (Azpiazu, 2005: 36).

Gizarte maila apalekoek zailtasun handiagoak zituztenez askatasuna berreskuratzeko, agintarien, ordena berrerosleen eta baita testamentutan gatibuak berrerosleko uzten zen diruaren menpeko ziren. Txiroa izateaz gain umezurtza ere bazen Juan Etxeberria eta Urtartekoak, 1658an urtebete zeraman preso senideak diru ezin bildu zebiltzan bitartean (Azpiazu, 2005: 36).

XVIII. mende hasieran, 1723, 1724 eta 1725ean Mesedetakoek Arjelen eta Tunisian egin zuten erroldan 1.069 gatibuen artean euskal jatorriko hamar ageri dira; baina ez dakigu zehazki nongoak diren, ez bada horietatik lau nafarrak zirela. Ez dakigu ere sei frantsesen artean euskal gatiburik ote zegoen (Buccianti, 1997: 66-68).

Euskal gatibuen berriak ia XVIII. mendearen amaiera arte agertzen dira. Hain zuzen ere, Espainiako erregeak 1784an Sultan otomandarrarekin bakea sinatu arte (Rilova Jericó, 2004: 33).

5.-Gatibuak askatzeko bitartekariak


Gatibuak askatzen, nagusiki, bi ordena erlijioso aritu ziren: Trinitarioak eta Mesedetakoak.

Trinitarioen ordena, 1194 inguruan eratu zuten Frantzian saint Jean de Mathak eta saint Felix De Valois-ek, *Ordre de la Très Sainte Trinité et de la Redemption des Captifs* izenarekin. Ordena honetako kideak *Mathurins* gisa ere ezagunak dira. Armak erabili gabe kristauen berreroslea helburu zuen Eliza katolikoaren instituzio ofizial

zaharrena da. Bere adar batek, Trinitario Oinetakodunenak, Garesen fundatu zuen 1209an bere monasterio nagusia. Trinitario Oinutsek, 1607an eratu zuten beren komentua Iruñean. Bestalde, 1591ko Zarauzko Batzarretan onartu zen Orion monasterio bat altxatzea (Anaut, 2019).



Gareseko Trinitarioen ospitalea
(Iturria: Auñamendi Entziklopedia)



Mesedetakoen Burtzeñako komentua
(Iturria: Ezagutu Barakaldo)

Mesedetakoen ordena, berriz, 1218an eratu zuen Bartzelonan san Pedro Nolascok, *Orden Real y Militar Santa María de la Merced y la Redención de los Cautivos* izenarekin. Eskekoen ordena honen helburua ere musulmanen eskuetan zeuden gatibuak berrerostea zen. Hain zuzen ere, preso zeuden bitartean apostasia egiteko arriskuan baitzeuden, kristautasuna arnegatu eta erlijio musulmana berenganatuz. Beren botoen artean, beste ordenetan ohikoak ziren pobreziari, obedientziari eta kastitateari laugarren bat gehitu zioten: fedez ahulagoak zirenak askatzea, bizia arriskuan jarri behar bazuten ere: Mesedetakoek beren burua bahituri moduan eskaintzen zuten preso eta esklaboek truke. Zeregin korapilatsu eta zaila zen gatibuak askatzea: neke fisiko eta kostu ekonomikoari bidaiaren arriskuak gehitzen zitzaizkion. Dirua biltzeko moduak biderkatu zituzten, horien artean oinordekotzan gatibuak berrerosteko dirua biltzea

zegoelarik. Gatibua askatu ostean, gehienez bi hilabetez beraiekin eramaten zuten bere bizipenen berri emanez kontzientziak inarrosteko (Ruiz Barrera, 2006: 843-844).

Gatibuak berrerosi ahal izateko bi ordenak eskekotzatik bizi zirenez¹⁰, batzuetan, bien artean lehia egon zen. Adibidez, XI. mende amaiera aldera, Trinitarioak ere hasi ziren Bizkaian limosna eske, eta talka egin zuten ordura arte zeregin horietan aritzen ziren Mesedetakoekin, hauek esatera, ez baitzegoen aski diru denentzat. Tira-birak ez ziren amaitu Burtzeñako Mesedetakoen komentuko¹¹ Komendadoreak frogatu arren haiek Jaurerrian dirua biltzeko eskusibotasuna zutela (Castillo, 2014).

Nahiz eta Jaurerriak arrazoia eman Mesedetakoei Trinitarioek ez zuten onartu ebazpena eta auzia ez zen konpondu. 1680an Gatibuen Berrerosketarako Trinitate Santuaren Oinutsen Ordenak Bizkaiko Jaurerriari eskatu zion limosna eskatzeko baimena berari baino ez ziezaiola eman eta indargabe utz zitzala Jaurerrian jasotako limosnak Mesedetakoen Burtzeñako komentuari emateko agintzen zuen dekretu oro, horrekin Oinutsek aginte erlijioso guztietan Mesedetakoei irabazitako epai betearazle guztien aurka egiten ari baitziren¹².

Azkenean, 1682an, Gernikako Batzarrak bi ordenei eskatu zien bakoitzak zenbat gatibu askatu zuen, gehien egin zuenari eskekotzan aritzeko baimen eksklusiboa ematea aginduz. Trinitarioek, Arjeletik askatutako bi gatibu baino ez zituzten aurkeztu; aldiz, Mesedetakoek, hogeita bost. Horren ondorioz, aurrerantzean Trinitarioei debekatu egin zieten Bizkaian eskatzen jarraitzea (Castillo, 2014).

Frantzian Trinitarioen eta Mesedetakoen arteko lehiari aurre egiteko Erreinua bi zatitan banatu eta iparralde Trinitarioei eta hegoaldea Mesedetakoei esleitu zieten. Salbuespen gisa, Mesedetakoek Britainian komenturik ez zuten arren haiei egokitu zitzairen eskualde hori. Bestalde, Marseillan bi ordenei utzi zieten komentuak izaten. Eta XVII. mendetik aurrera, bi ordenek misioak elkarrekin antolatu eta elkarrekin berrerosten zituzten gatibuak (De La Veronne, 1970: 133, 138; Provost, 2011: 136).

10 Trinitarioen araudiak agintzen zien jasotakoaren herena gatibuen berrerosketarako gordetzea (Deslansres, 1903: 113).

11 Butzeñako Jasokundearen komentua 1384an eratu zen eta 1836an desagertu, Gerra Karlistaren testuinguruan, Mendizabalen desamortizazioaren eraginak jasan eta gero, urte horretako martxoaren 9ko Errege Dekretu batek hala aginduta. 1588tik aurrera izan zituzten arazoak Trinitarioekin limosna jasotzeko eskusibotasunagatik (PARES, ES.28079.AHN/3.1.2.21.1).

12 BDAH, Elorrio 00677/061.

Ordena berrerosleek Euskal Herri osoan eduki zituzten komentu nagusiak¹³: Trinitarioenak Iruñean, Garesen eta Orion; eta Mesedetakoena Burtzeñan (Barakaldo), Ibarra (Orozko), Iruñean eta Baionan¹⁴. Baionako diozesiko Mesedetakoek bereziki lan egin zuten gatibuen askatzeko. Euskal Herri inguruan Trinitarioek Burgosen eta Logroñon zituzten komentuak (Auñamendi).

Zenbatetan, ordena hauek arazoak izan zituzten tokiko agintariekin, ez baitzuten erabiltzen dirua tokiko gatibuak askatzeko, eta gertatu izan zen bai Mesedetakoei eta bai Trinitarioei berrerosketetan parte hartzea debekatzea (Azpiazu, 1997: 41).

5.1.-Gatibuak berrerosketeko urratsak

Gatibuak berrerosketeko misioak antolatzen zituzten ordena hauek, horretarako hainbat urrats egiten zituztelarik: lehenik, Ordenaren buruak misioan abiatuko ziren fraideak hautatzen zituen. Hauek helduak izan behar ziren, bertutetsuak, zuhurak, errukiorrak eta azkarrak ez zitzaten bahitzaileek engaina. Agintari zibilek beharrezko baimen eta bidaia-agiriak ematen zizkieten. Horren ostean, herrian iragartzen zuten berrerosketa saioa abian zela eta limosna biltzen zuten. Batez ere dirua erabiltzen zuten erreskatea ordaintzeko, baina baita salgaiak, ganadua eta preso hartutako musulmanak ere. Itsasontziari berrerosketaren ikurrak ezartzen zizkieten. Bidaldian zeuden bitartean egunero errezatzen zuten haien alde. Misioa bete eta itzultzen zirenean, prozesio bat antolatzen zen hirian¹⁵, elizako agintari, berrerosle eta berrerosiekin, eta meza ospatzen zuten. Prozesio horiek oso garrantzitsuak ziren Berberian gertatzen zenaren berri emateko herritarrei¹⁶. Ebanjelioaren ostean berrerosle batek gertatutako guztiaren berri ematen zion herriari. Berrerosiek bi hilabete igarotzen zituzten komentuan laguntzen. Horren ostean, arropak, oinetakoak eta elikagaiak jasotzen zituzten beren etxetara itzul zitezten. Fraide berrerosleek txosten batean zehatz-mehatz ematen zuten misioaren berri, zein urte eta lekutan gertatu zen berrerosketa eta berrerositakoena datuak, izen-abizena,

13 Ez dugu aurkitu Frantziako probintzien menpe zeuden komentuen eta Espainiakoen menpe zeudenen arteko harremanaren berririk.

14 Ez dugu Trinitarioen komenturik aurkitu euskal lurraldeetan Frantziako ordenaren probintzia antolaketan (Deslansres, 1903: 447-451).

15 Frantzian, gatibuak berrerosi osteko prozesioaren aurretik inprimaki batzuk argitaratzen zituzten, gatibuen eta fraide berrerosleen izenekin (De La Veronne, 1970: 135).

16 XVIII. mende erdialdera, kortsario turko-berberiarren ekinaldien apaltzearekin batera prozesio horiek ere gutxitu egin ziren, desagertu arte (De La Veronne, 1970: 141,142).

adina, jatorria, gatibutzan emandako denbora eta bakoitzarengatik ordaindutako diru-kopuru zehatza (Ruiz Barrera, 2006: 844-846).

Euskal Herriko biztanleak askatzeko ere horrelako misioak antolatu ziren. Horietako bat Migel Garisoainekoa fraideak bultzatu zuen 1661eko urtarrilean¹⁷, Portugaleko kostalde aurrean Juan de Casanova kapitainaren itsasontziari eraso egin eta Saleko piratek bizirik harrapatu eta Arjelen saldu zituzten hondarribiarrak askatzeko (Harresi, 2014).

6.-Nork eta zergatik jartzen zuen gatibuak askatzeko dirua?

Gatibu hartzen zituzten guztiek ez zuten ahalmenik beren askatasuna ordaintzeko. Ondorioz, dirua beste bide batzuetatik biltzearen menpe zeuden. Dirurik ez zeukatenean, emazteak izan ohi ziren beren senar, seme edo anaien erreskaterako eskatutakoa biltzeko ahaleginak egiten zituztenak, agintariengana joz edo maileguan eskatuz ere. Askotan gertatzen zen ere agintariak aski dirurik ez izatea haien askatasuna ordaintzeko (Azpiazu, 1997: 32 eta 37).

Bahitzaileek gatibuen berriak haien hurkoei helarazteko modua aurkitzen zuten, haren egoeraren berri ematearekin batera bere askatasuna lortzeko ordaindu beharrekoa jakinaraziz (Azpiazu, 1997: 35).

XVII. mendean, leku batzuetan, gatibuen askatasunarekin interesa zuten eragileak (kostaldetako hiriak, senideak bereziki emazteak, gatibuek apostasia egingo zuten beldur ziren elizgizonak eta beren mailako jendearen gatibutzarekin kezka zuten aberatsak) agintariak estutzen hasi ziren gatibuak askatzeko erantzun egituratuagoak antola zituzten eta dirua eman zezaten (Provost, 2011: 316, 317).

Horrela, hurkoek herrialdeko agintariengana jotzen zuten, eta udal eta Batzar Orokorrek beren gain hartzen zuten gaia. Aurrena, gatibu hartutakoen informazio ahalik eta osatuena bilduz. Ondoren, dohaintzetako eta limosnen bidez bildutako dirua tokiko gatibuak askatzeko erabil zedin saiatur. Azkenik, kezkatu egiten ziren oinordekotza agirietan gatibuak berrerosteko utzitako dohaintza horiek egikaritu zitezten. Batzuetan,

17 Lan honen amaieran ikusiko dugu zer nolako gorabeherak eduki zituzten beren erreskatea ordaintzeko eta nola itzuli ziren ia urtebeteren buruan Hondarribira horietarik hamar, norbanakoek eta agintariak erreskatearen dirua lortu ostean.

alkateei agintzen zieten oinordekotzetan agindutakoa betetzeaz ardura zitezen, 1629an Mutrikuko alkateari gertatu zitzaion bezala (Azpiazu, 1997: 36-37).

Agintariez gain, norbanakoek ere jarri izan zuten gatibuak askatzeko dirua. Aberastutako merkatari, itsasgizon edota elizgizonak izan ohi ziren. Horietako bat Juan Ibañez Hernanikoa oñatiarra izan zen, zeinak XVI. mendearen lehen erdian dontzeilei eta gatibuei laguntzeko fundazio bat sortu zuen; zehazki, bere oinordekotzaren heren bat “moroen” eskuetan zeuden gatibu kristau “baskongadoak” askatzeko erabiltzeko agindu zuen. Mende bat beranduago laguntza ematen jarraitzen zuen eta inguruko fundaziorik sonatuena zen. Horrela, 1640an, funtsaren maiordomoek Martin Berrotarangoa hondarribiarraren askatasun lortzeko 1.100 erreale eman zuten. Beharrean zeudenek fundazioko buruarengana edo agintariengana jo zezakeen laguntza eske (Azpiazu, 1997: 38-39; Harresi, 2014).


Hori bai, dirua maileguan hartzen zuten, itzultzeko konpromisoz, adibide honek erakusten digun bezala: Elbira Batizkoak, Arjelen gatibu zeukaten bere senar Domingo Gamarrakoaren erreskatea ordaintzeko Domingo Beitikoak eta haren andre Maria Otxanda Markuekoak utzi zizkieten hogeita lau dukatak itzuli zizkien 1657ko irailaren bostean¹⁸. Baina, maiz gertatzen zen ere, zati bat baino itzultzeko ahalmena ez izatea (Azpiazu, 1997: 38-39).

Txiroek beren kondizioa frogatu behar izaten zuten, gatibuak berrerosteko funtsen onuradun izan nahi bazuten: 1649ko maiatzaren 14an Ana Barrutiakoak eta Magdalena Zamalloakoak lekeitiarrek txiroak zirela froga zedin eskatu zuten, Arjelen eta Tunisian preso zeuzkaten beren senar Martin Mutrikukoa eta Domingo Soloagakoa askatu ahal izateko funts horietako dirua erabil zezaten¹⁹. Hori egin behar izan zuten ere 1667an Arjelen gatibu zeuzkaten Joakin de Recanioren eta Frantzisko Irurekoaren ingurukoek, debarrak eta txiroak zirela frogatzen zuen informazioa bilduz²⁰ (Ikus irudia hurrengo orrialdean).

18 BDAH, N0254/0117

19 BDAH, N0250/0233.

20 LAH, Pueblos 1667, paper-sorta 7/33.



Arjelen gatibu zeuzkaten Joakin de Recanio eta Frantzisko Irurekoa pobreak eta debarrak zirela frogatzen zuen informazioa.



Oxinagako jaunaren errukizko obren kontu-liburua (Iturria: Casa de Colmenares de Liconako Agiritegia, Anejo Inventario, 152).

Ibañezen fundazioa ez zen bakarra. Erkideen arteko elkarkidetzaz egon zela erakusten digu Otxoa Urkizakoa lekeitiarraren ekimenak, zeinak Sevillako Kontratazio Etxearen epaile-kontalari ofiziala eta Kalatrabako Ordenaren zaldun izanik, 1603an, bere oroitza gordetzen zuen fundazioa eratzerakoan, besteren artean, gatibu hartzen zituzten lekeitiar txiroak askatzeko erruki dohaintzak utzi zituen²¹. Horrela, 1654ko urtarrilaren 16an, hark agertutako borondateari men eginez, Urkizakoaren fundazioaren patroiz eta Bilboko Jesusen Konpainiaren Kolegioko errektore zen Jose Tamayokoak, Tunezen gatibu zeuzkaten Domingo Soloarangoaren erreskatea ordaintzeko eskritura egin zuen²². Hiru hilabete beranduago erreskatearen kopurua ordaindu zuen Lekeitioko hiriak²³.

Erreskateko dirua lortzeko ezker-eskuin jotzen zuten aztarnak aurkitzen dira dokumentuetan, auziak Euskal Herriko leku desberdinak harremanetan jartzen zituztelarik, gatibutza zeudenak askatzeko behar zen dirua lortzeko zeuden harreman-

21 Sancho el Sabio Funtza (SSF), _A.U._BEINGOLEA, N.918.

22 BDAH, N0252/0162.

23 BDAH, N0252/0207.

sareak herri edo hiri bakoitzaren esparrua gainditzen zuelarik. Lekeitio eta Donostia harremanetan agertzen zaizkigun ondorengo kasuan bezala: 1643ko uztailaren zazpian, Bartolome Lopez Sosoagakoa lekeitiarrak Tetuanen gatibu zeukaten Esteban Ortégakoa donostiarraren erreskatea ordaintzeko 10.200 errealeko ordain-agiria eman zion haren emazte Isabela Berrearzakoa donostiarrari²⁴.

Hala ere, bi herri edo herrialde harremanetan jartzen zituenak baino eragiketa konplexuagoak ere burutu behar izan zituzten: María Pez alargunak Berberian gatibu zeukaten bere seme Lorenzo Mendia Otalora arrasatearraren askatasuna lortzeko Sevillako merkatariengana jo zuen, Espainia Berritik jaso behar zituen 5.200 erreal erreskatea ordaintzeko erabiltzeko baimena emanaz (Azpiazu, 2005: 36).

Baina, erreskate prozeduraren harira, dirua tarteko izanik, auziak gertatzen ziren. Izan ere, gatibua askatzeko ez zen beste zereginetarako erabil zezaketen dirua hartzaileek. Horrelakoetan, auzibideak abiaraztea beste biderik ez zuten izaten, bai agintarien babesa bilatuz, bai elizarena. Horietako kasu bat izan zen 1739. eta 1740. urteen artean, Begoñako elizateko Nikolasa eta Josefa Markezi gertatu zitzaiena, Bilboko murrutatik kanpoko San Agustineko komentua babesa lortu baitzuten Joakin Basabekoa Urkieta bilbotarraren aurka zuten auzian, gatibu zegoen beren senide Tomas Markezen askatasuna lortzeko isilpean eman zizkioten zilarrezko sei ehun ezkuak ez zituelakoan zuzen erabili²⁵.

Beste kasu bat Baionan gertatu zen. 1721eko maiatzean kortsario turko-berberiarrekiko negoziaketetan ospea lortu zuen Denis Dusaultek bere testamentuan 1.500 liberako errenta utzi zuen Baionarren Altxorreko gatibuen askatasunerako atalerako. Diru hori bi giltzadun kutxa berezi batean egon behar zen: giltza bat familia buruak eta bestea Baionako gatibuen altxorzainak gordetzeko. 1746an, Noel Dusault d'Onzac orduko familia-buruak oinordekotza agiriak agindutakoaren arabera baionarrik gatibutzan ez zegoenean dirutza hori Trinitarioei eta Mesedetakoei eman beharrean, kaudimenik gabe zegoen Baionako hiriarri eman zion. Oinordekotza agiriak agintzen zuena betez esleitutakoa itzuli behar izan zion bi ordenei (Deslansres, 1903: 340).

24 BDAH, N0248/0365.

25 BDAH, JCR3605/014.

Gertakari garrantzitsu batzuen karietara agintariek ere gatibuen aldeko neurriak hartzen zituzten. Hondarribiak garrantzia handia zeukan Espainiako monarkiarentzat eta 1638an Hondarribiko setioaren²⁶ altxatzea ospatzeko Filipe IV.ak Errege Dekretu batean agindu zuen Erregearen Errukizko Obretan lehentasuna eman ziezaietela Hondarribiko gatibuei²⁷. Gainera, ordutik aurrera eta betirako, bere eraginpean zeuden eliza eta komentu guztietan urtero hiru gatibu aska zitzatela ere agindu zuen erregeak (Harresi, 2014).

Juan Ibañez Hernanikoa oñatiarrak bezala egin zuen ere Santxo Urdanibiakoa²⁸ Itsas Armadako jeneralak hiltzerakoan, bere testamentuan gatibuak berrerosteko utzitako diruarekin nor askatu behar zen aginduz: aurrena bere erkide irundarrak eta ondoren hondarribitarrak. Manuel Iriberrikoak ere, 1648ko testamentuaren bidez eratu zuen patronatuaren funtsekin aurrena donostiarrak eta ondoren hondarribiarrak eta irundarrak ezarri zituen askatzeko lehentasun-zerrendan (Harresi, 2014).

Tokiko jauntxoek beren erkideen alde egiten zutela erakusten duen beste adibide bat Bergarako Madariaga kapitainarena da. Gatibuak berrerosteko utzitako dirua bergararrak askatzeko izan zedin agindu zuela berretsi zuten 1625ean²⁹.

Lehentasunari dagokionez, tokiko agintariek indar egiten zuten tokian bildutako diruarekin bertakoak aska zitzaten. Adibidez, 1623an Gipuzkoako agintariek eskatu zuten probintzian biltzen zen dirua bertako gatibuak berrerosteko erabil zedila³⁰.

Azkenik, Amerikan ere gatibuak berrerosteko dirua bildu izanak frogatzen du kortsario turko-berberiarren erasoek zenbaterainoko eragina zuten: 1671n Potosiko eta Eskoriatza eta Eibarko herritar ziren Juan Mondragon Azkarretazabalek eta Sebastian Jauregikoa kapitainak gatibuak berrerosteko errukizko obren kontura auzia izan zuten³¹.

26 1638ko uztailaren leian, Hogeita hamar urteko Gerran, frantsesek Irun, Oiartzun, Lezo, Errenteria eta Pasaia bereganatu zituzten eta ondoren, Espainiako monarkiarentzat ontzigintzagatik eta itsasgizonengatik garrantzia handia zuen Hondarribia setiatu egin zuten. Indarrak nabarmen setiatzaileen alde zeuden arren, laguntza iritsi bitartean, 69 eguneko setioari eutsi zioten (hondarribia.eus).

27 Hondarribiko Udal Agiritegia (HUA), 2. lib.: 58. erreg.

28 Santxo Urdanibiakoa 1585ean Irunen jaio zen, baina oso gazterik Cadizera joan zen bizitzera. Indiako Ontzidian aritu zen eta Itsas Armadako jeneral izendatu zuten. Cadizen bertan hil zen 1644an.

29 Bergarako Udal Artxiboa (BUA), L/017

30 Simancas-eko Agiritegi Orokorra (SAG), L 894

31 Valladolideko Erret Auzitegiko Agiritegia (VEAA), C 77/1, L 17

6.1.-Nola antolatzen ziren euskal itsasgizonak beren buruak babesteko?

Bereziki Sevilla aldera abiatzen ziren euskal itsasgizonek bazekiten kortsario turko-berberiarren eskuetan eror zitezkeela. Hori, gerra garaian beste edozein etsairen (frantses, ingeles edo holandes) eskuetan erortzea baino okerragoa zen, Arjel edo Tetuango ziegetan geldituko baitziren erreskatea ordaindu bitartean (Azpiazu, 1997: 35).

Horri aurre egiteko, babes neurriak hartu zituzten: itsasontziak armatu, ontzidian bidaiatu eta, azkenik, erasoaren aurrean, ontzia bere zama preziatuarekin bertan behera utzi eta txalupetan ihes egitea izan ohi zen erasotzaileak ugariagoak eta hobeto armatuak zeudeneko irtenbidea (Azpiazu, 2004: 30,32).

Kasu batzuetan, maila berekoen arteko elkartasunari esker lortzen zuten askatasuna: 1662an Antonio Etxauz kapitainaren askatasuna ordaintzeko 1.300 errealeko fidantza eman zuen Juan Bautista Mugarrietakoak (Azpiazu, 2005: 36).

Nabigatzaile-kofradiek bazituzten ere gatibuak erreskatatzeko diru-funtsak eta marinelak erreskatatzeko erabiltzen zituzten. Esaterako, 1620ko urriaren lehenean, Lekeitioko nabigatzaile-kofradiako maiordomo Lope Pagaldaikoak eta Juan Nareakoak Arjelgo gatibuak erreskatatzeko eskura zuten seihun dukatetatik lauhun dukateko salmenta eskritura egin zuten Domingo Anduizkoaren alde³².

Mediterraneoan bazeuden gatibu hartzen zituzten itsasgizonak askatzeko antolatutako kofradiak, askatasuna errazteko aseguruak egiten zituztenak. Adibidez, 1668an Arjelen gatibu zegoen Martineneako Migelen eta Martin Sanz Iribarrenekoaren askatasuna lortzeko Mesedetakoekin batera parte hartu zuen Cadizeko Bizkaitarren Meritu Oneko Kaperak (Azpiazu, 1997: 40; Azpiazu, 2005: 36-37).

Amaitzeko, Hondarribiko Udal Artxibategiko gutun batzuen bidez³³ ikusiko dugu nola 1661eko urtarrilean, Portugaleko kostaldean kortsarioek Hondarribiko itsasontzi bati eraso egin eta hainbat herriko seme gatibu hartu eta gero, elkarkidetzan

32 BDAH, N0310/0750

33 Ondorengo gutunetako informazioa hemendik ateratakoa da: HUA, 36. lib.; 2. erreg.

aritu ziren,³⁴ beren senideak, Andaluzian zeuden merkatarik hondarribiar batzuk, Gipuzkoako agintariak eta ordena berrerosleak.

- 1661eko otsailaren 11n, Frantzisko Alberrokoa hondarribiarrak Sevillatik jaioterrira igorri zuen gutunean bere burua eskaini zuen gatibuak zehazki non zeuzkaten jakiten ahalegintzeko.

- 1661eko apirilaren 12an igorritako gutunean jakinarazi zien Arjeletik jasotako gutun batean esaten ziotela Hondarribiko kapitain bat eta beste herritar batzuk bahituta zeudela.

- Horren ondorioz, Gipuzkoako hainbat agintarik eta ordezkariak ordena berrerosleengana jo zuten laguntza eske.

- 1661eko apirilaren 23ko gutun batean jakinarazi zuen Hondarribiko udalak zertan zetzan auzia: “Turkoek” Kanariar Irletatik Portugalera bidean zihoan itsasontzi bati eraso egin, batzuk hil eta zauritu eta hamabost gatibu hartu zituztela. Gutunean jakinarazi zuten ere, asko zirenez, ez zeukatela denak askatzeko aski diru. Mesedetakoak Valentziatik Arjelera joango ziren berria ematen zuten.

- Auziaren gainean zeudenek aurreikusi zuten Maiatzaren 1ean ospatu beharreko Gipuzkoako Batzar Orokorretan gatibu gipuzkoarrei buruz arituko zirela.

- 1661eko otsailaren 5ean Valentziatik Hondarribira igorritako gutun batean, Migel Garisoainekoa fraideak udalari jakinarazi zion gatibu hartutakoen nortasuna, hamar baino aipatzen ez bazituen ere; horien artean, Juan Casanova kapitaina eta haren semea, Sevillatik lehen gutuna idatzi zuen Frantziskoren lehengusu Isidro Alberrokoa, Antonio Gomes hamalau urteko nerabea eta Felipe Ursua lau urteko haurra.

- 1661eko ekainaren 12an Juan de Urdanibiak Cadizetik Hondarribira idatzitako gutun batean, bere burua eskaini zuen erreskatearen ordainketan laguntzeko.

- Egun gutxiren buruan, Cadizetik ere Frantzisko Aranibarrekok bere laguntza eskaini zuen; zehazki Amerikako galeoia iristean 600 peso zilarrezko emango zituela gatibuak berrerosleko. Behartsuenak laguntzeko 150 peso bere poltsikotik jartzeko prest agertu zen, gainontzekoak maileguan eskainiz, gatibuek askatasuna lortu eta hiru urteren buruan itzultzeko baldintzarekin; gehitzen zuen, alde guztietan hainbeste hondarribiar

34 Ikus 19. or.

prestu egonik, ez ziotela uko egingo beren anaia gatibuak berrerosteko errukizko obran parte hartzeari.

- 1661eko uztailaren 14an Juan Cruz de Gainjak Cadizetik Hondarribira gutuna igorri zuen, jakitera emateko Casanova kapitaina eta beste hondarribiarrak askatzeko bera eta Don Jose Bengoleakoa maiordomo ziren kaperari dirua eskatu zietela Esteban Etxeberriakoak, Juan Lizarraldekoak, Pedro Azpilikuetoak eta Frantzisko Alberrokoak, haiek dirurik ez zutela esanez.

- Azkenean, 1661eko azaroaren 2an Iruñetik Hondarribira idatzitako gutun baten bidez ematen zuen Migel Garisoainekoa kapilauak gatibuen askatasunaren berria. Kapilauak Valentziatik Iruñeraino bidean lagundu zien.

Horrekin lotuta, 1661eko abenduaren 4an, Frantzisko Aranibarrekoak Hondarribira idatzi zuen, Casanova kapitaina eta bere eskifaia kideak askatzeko erabili asmo ziren 600 pesoen zati bat Antonio Etxauzkoa izeneko beste gatibu bat askatzeko erabili nahi zituela esanez.

Gatibuak askatu eta etxera itzuli baziren ere, auzia ez zegoen guztiz amaituta, gatibuak askatu eta ia bi urteren buruan, 1663ko irailaren 26an, Zaragozatik idatzi baitzuen Migel Garisoainekoa kapilauak ohartarazteko gatibuak askatzeko aritu ziren bitartekariak ez zutela jaso zor zitzaiena.

7.-Ondorioak

Ikusi dugunez, XVII. mendeak aldaketa ekarri zuen Otomandar Inperioaren eta bere kideen eta herrialde kristauen arteko harremanean. Otomandar Inperioaren helburuak aldatzearekin batera, Afrika iparraldeko Estatu-hirien babesean bideratutako kortsoak urrats berriak egin zituen: batetik, aurrerapen teknikoen bidez ordura artean iritsi gabeko lurraldeetaraino hedatu zuten beren eragin-gunea; bestetik, moriskoen kanporaketak indar berriak egin zituen, bai kopuruz eta bai ezagutza aldetik. Horrela, Mediterraneoko bazterrak ez ezik, iparraldeko itsaso eta kostaldetara iritsi ziren eta baita Indiako Ontzidia eta Atlantikoko itsas-bideak mehatxupean jarri ere.

Kortsario turko-berberiarrek Euskal Herrira iritsi gabe ere, euskaldunek bai Mediterraneoan eta bai Atlantikoan nabigatzen zuten, nahitaezko zorigaiztoko harremana izan zuten haiekin.

Zentzu horretan, Euskal Herriko lurralde guztietako biztanleak egon ziren kortsario turko-berberiarren menpe, eta biztanle guztiei alde edo moldez eragin zion auzia izan zen. Zuzenean kolpatuak ez zirenek, gatibuak askatzeko ekimenetan parte hartzen zuten, limosnen bidez, testamentuetan errukizko obretan gatibuak berrerosteko dohaintzak eginez eta gatibuen aldeko ekimen eta errezoen bidez.

Gatibuak berrerosteko ordenen arteko harremana gatazkatsua izan zen Euskal Herrian, hainbat lekutan lehian aritu baitziren jendearen limosna eskuratzeko. Gatazkatsua izan zen ere agintedunekiko harremana, ordena berrerosleek askatu beharreko gatibuen nortasunaren inguruan eta berrerosketarako lortutako diruaren erabilerari dagokionez; batzuetan beharrean zeuden erakundeek eskura zegoen diru hori erabili baitzuten.

Gatibuak berrerosteko orduan gizarte elkarkidetzak handia egon zela nabarmendu behar da, dirua eman edo mailegatzeko orduan, nahiz eta kasu batzuetan, ordena berrerosleekin gertatu bezala, gatazkak ere sortu ziren norbanakoen artean eta norbanako eta patronatu edo erakundeen artean.

Azterlanera ekarri ditugun gatibuak askatzeko prozedura batzuen konplexutasunak aditzera ematen du ez zirela ezohikoak izango eta kezka eta irtenbideak bilatzeko ardura ere hedatua egongo zela orduko gizartean.

Bestalde, Euskal Herria garaiko testuinguruan ondo txertatuta zegoela erakusten digu gatibuen auziak, Euskal Herria (gatibuak), Afrika (bahitzaileak), Sevilla-Cadiz (erreskatea lortzeko kudeaketa) eta Amerika (dirua) lotuta agertzen baitira hainbat kasutan, garaiko gizarte lotura eta baliabideen adierazgarri direlarik. Kortsario turko-berberiarrek eragindako arazo eta kalteei aurre egiteko, tokiko baliabideez gain, merkataritza-, politika- eta erakunde-harremanak aktibatzeke gai izan baitziren.

Oinordekotzen errukizko obren, goi-mailakoen patronatuen eta limosnen bidez jasotzen zenarekin Kortsario turko-berberiarrek sortzen zituzten kalteak aurreikusteko gai izan ziren, haien erasoak ekiditea ezinezkoa zen neurrian eta orduko antolaketa

sozio-ekonomikoan gizarteko atal guztiak parte hartzen zuen merkataritza jarduerak ezinbestekoak ziren neurrian.

Beraz, oro har, XVII. eta XVIII. mendeetan gizarteko atal guztiei eragin eta guztiak mugiarazi zituen Afrika iparraldean gatibu hartu zituztenen auziak. Eta erasoak egon edo ez, jendartearen egunerokotasunean sartuta zegoen errealitatea izan zen. Horrek arrasto sakona utzi zuen arriskua igaro ondoren ere.

Zentzu horretan, azpimarratzekoa da hainbeste denbora igaro ez bada ere, gaiari buruz dagoen ez-ezagutza, kortsarioak eta piratak beste herrialde eta eskualde batzuekin lotzen baitira eta, aldiz, Afrika iparraldekoak izan ziren eragin zuzena izan zutenak bertako gizartean, harreman gatazkatsu horren oroimena desagertuta dagoelarik gaur egun.

Bestalde, aurrera begira, auziaren dimentsio errealaren ikuspegi zuzenagoa izateko, beharrezkoa litzateke, beste herrialdeetan egin bezala (Galizia eta Britainia esaterako), azterketa xeheagoa egitea, dauden misioen txostenak eta artxibategiak miatuz zehatzago jakiteko zer nolako eragin zuzena izan zuen garaiko biztanlerian kortsario turko-berberiarren ekinak Euskal Herrian.

Beste ikergai interesgarria litzateke jakiten saiatzea zergatik ez zituzten egin Euskal Herriko kostaldean erasoak, eskualde urrunagokoetan egin zituzten bitartean.

Azkenik, interesa luke ere mugaz bi aldetako gatibuen artean eta ordena berrerosleen artean izandako harremanak ikertzea, kontuan hartuz gerra garaietan ere, konbertsak medio, alde bateko eta besteko marinela ibiltzen zirela bai bateko eta bai besteko ontzietan.


ERANSKINAK

1.-MAHOMET HITZAREN INGURUAN

Xarles Bidegain euskaltzainari *mahomet* (Zuberoa aldean *mahometa* edo *maomet*) hitzari buruz galdetuta esan zigun haize zurrumbiloa eta ur zurrubiloa bereizi egiten direla³⁵.

Haizearenari dagokionez, bere izaera txarra agerian uzten duten izenak eman izan zaizkiola, deabruarekin identifikatuz (akelarre ere deitzen zaio Nafarroa Garaiko iparraldeko eskualde batean), bera uste izatekoa da haize zirimola mahomet izendatzearekin deabruarekin parekatzen ari zirela.

Gaur egungo erabileran bizirik dagoen hitza izanik, dudarik ez da erro zaharrak dituen hitza dela, baina Euskararen Herri Hizkeren Atlasak (EHHA) ez ditu aztertzen noiztik erabiltzen diren.



“Mahomet” hitza herri hizkeraren mapan (Iturrria: EHHA)

Ikertzeko beste ildo bat auzo hizkuntzak begiratzea litzateke Bidegainen aburuz, zuberotarrek gaskoinen hitzak erabiltzen baitituzte batzuetan. Eta ildo horretan frantseseko esamolde baten berri eman zigun eguzkiak gogor jotzen duenean erabiltzen dena: “*aujourd’hui, Mahomet, il coque!*”³⁶”.

Bidegainek jakitera eman zigun ere, argitaratuta ez dagoen datu bat, alegia, ekaitzak harea dakarrenean deitzen zaiola *mahomet*.

35 Ahozko kontsulta 2019ko uztailaren 10ean eta 16an.

36 “Gogor jotzen du gaur Mahometek!”

Berak aholkatu bezala, Orotariko Euskal Hiztegian begiratu dugu *mahomet* hitzaren erabilerari buruz zer agertzen zen. Gainera, *turko* hitzari buruzkoa ere begiratu dugu eta ondorenean doa ikerketa xume horren emaitza.

- *Maomet* hitza horrela definitzen du Frederic de Saint-Jaymek (Donapaleu 1862-Donapaleu 1938) bere “Annotations aux Dictionnaires d'Azkue, Fabre et van Eys” eskuizkribuan: “manga de viento o torbellino que dispersa el heno, etc., en movimientos giratorios”. Orotarikoan atzenduta dago Zuberoan erabiltzen den hitza dela aipatzea.
- 1877tik 1912ra argitara eman zen “Fedearen Propagacioneco Urtecaria edo Fedearen Propagacioneco berriac urteca ematen dituen” agerkariko 1904koan honela aipatzen da: “Haize *mahoma* edo tiriritiak khendu zarokun [karrosaren zinkezko estalkia]”.
- *Bahumeta* edo *bahomet* hitzak honela definitzen ditu Resurreccion M.a de Azkueren 1905-1906ko *Diccionario Vasco-Español-Francés*-ek: “Ciclón, remolino de viento”.
- *Bahumet*, *bahumeta* zuberotar eskuizkribuzko hiztegi baten egile izan zen Pierre Foixentzat (1865-): “cyclone, tourbillon de vent”. Eta Pierre Lhanderen (Bayona 1877-Tardets 1957) Dictionnaire basque-français-ean “tourbillon de pluie ou de vent”.

Turko hitzaren inguruan hauek aurkitu ditugu.

- Juan Martin Elexpuruk, argitara gabeko 1985eko “Bergara aldeko lexikoa”n dio: “*Turkua, nombre de un famoso carretero y transportista bergarés, que fue para los niños de cierta época sinónimo de 'el hombre del saco'*”
- Jean Duvoisinzentzat (Ainhoa 1810-Ciboure 1891) XIX. mende amaierako euskara-frantses hiztegi argitaragabearen arabera:
 - *Turkokeria*: “*Acte de dureté, de barbarie*”.
 - *Turkotasun*: “*Caractère de dureté, de barbarie*”.
 - *Turkotu*: “*Devenir dur, insensible*”.
- Pierre d’Urterentzat 1715 inguruko bere Hiztegi argitaragabearen arabera:
 - *Trukokeria*: “*Atrocitas, [...] trukokéria, krudelitatea, salbaiatasuna*”.

2.-HIZTEGI TXIKI BAT

Bahisari	<i>Rescate</i>	Mesedetako	<i>Mercedario</i>
Erdeindu	<i>Circuncidar</i>	Nabigatzaile-kofradia	<i>Cofradia de mareantes</i>
Errukizko obra	<i>Obra pía</i>	Trinitario Oinetakodun	<i>Trinitarios Calzados</i>
Gatibu berreroste	<i>Redención de cautivo</i>	Trinitario Oinutsik	<i>Trinitarios Descalzos</i>

BIBLIOGRAFIA

- Amores Carredano, J.B. (coord.) (2006), *Historia de América*, Barcelona: Ariel.
- Anaut, Bernardo (2019), “Trinitarios”. Auñamendi Entziklopedia.
<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/trinitarios/ar-132091/>
- Auñamendi Entziklopedia (2019), “Orden de la Merced”. Auñamendi Entziklopedia.
<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/orden-de-la-merced/ar-127675/>
- Azpiazu Elorza, José Antonio (1997), *Esclavos y traficantes. Historias ocultas del País Vasco*, Donostia: Tarttalo.
- (2004), “*Historias de corsarios vascos: entre el comercio y la piratería*”, Donostia: Tarttalo.
 - (2005), *Nuevas historias de corsarios vascos. Biografías y vivencias*, Donostia: Tarttalo.
- Benassar, Bartolomé y Benassar, Lucille (1989), *Los cristianos de Alá. La fascinante aventura de los renegados*, Madrid: Nerea.
- Bucciatti, Cinzia (1997), “El rescate de cautivos en África. A propósito de la redención de la orden de la Merced en Argel y Túnez durante los años 1723-1725”, *Investigaciones Históricas*, 12, 61-77.
- Castillo, Daniel (2014), “El Monasterio Mercedario de Burceña”, Ezagutu Barakaldo.
<https://ezagutubarakaldo.net/el-monasterio-de-burceña/> (2019ko uztailak 5).
- De La Veronne, Chantal (1970), “Quelques processions de captifs en France à leur retour du Maroc, d'Algérie ou de Tunis”. *Revue de l'Occident musulman et de la Méditerranée*, 8, 131-142
- De Haedo, Diego (1608), *Topografía general de Argel*, Valladolid: Diego Fernández de Córdoba.
- Delumeau, Jean (1989), *El miedo en Occidente*, Madrid: Alfaguara.
- Deslansres, Paul (1903), [*L'Ordre des Trinitaires pour le Rachat des Captifs*](#), Toulouse-Paris.

- Estornés Zubizarreta, Mikel Garikoitz (2019), “Ahedo, Diego de”. Auñamendi Entziklopedia. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/ahedo-diego-de/ar-7313/>
- Euskaltzaindia “Euskararen Herri Hizkeren Atlas” <https://www.euskaltzaindia.eus/index.php>
- Euskaltzaindia, “Orotariko Euskal Hiztegia” <https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?>
- González Castrillo, Ricardo (2011), “Cautivos españoles evadidos de Constantinopla en el siglo XVI”, *Anaquel de estudios árabes*, 22, 265-278.
- Harresi, Tetxu (2014), “Cautivos en Berbería”, *Cosas de Alde Zaharra*, 25 <http://www.hondarribia.eus/eu/xvii-mendea-1638ko-setioa>
- Heers, Jacques (2003), *Los berberiscos*, Barcelona: Ariel.
- Martínez Crespo, José (2017), “Después de Lepanto: corsarios turcos y berberiscos en las costas de Galicia en el siglo XVII”, *Cuadernos de Estudios Gallegos*, LXIV, 130, 229-312.
- Moya Sordo, Vera (2019) “Cautivos del corso español. El trato a los prisioneros durante el siglo XVIII”. *Cuadernos de Historia Moderna*.
- Provost, Georges (2011), “L’horizon barbaresque des Bretons (XVIe-XVIIIe siècle)”. *Mémoires de la Société d’Histoire et d’archéologie de Bretagne*, 89, 301-327.
- Quintana Moraira, J. L. (2009), *Los últimos años del corso berberisco (1815-1830) a través de la correspondencia consular española*. Tesis doctoral Universidad de Alcalá.
- Rilova Jericó, Carlos (2004), “Los visitantes incómodos: Bilbao y las casas de los enemigos de Dios y del Rey. Turcos, brujas, herejes y revolucionarios (1500-1973)”, *Bidebarrieta*, 15, 29-45.
- Ruiz Barrera, M^a Teresa (2006), “Redención de cautivos. Una especial obra de misericordia de la orden de la merced”, en Francisco Javier Campos (coord.), *La iglesia española y las obras de caridad*, Sevilla: Universidad de Sevilla, 843-861.

ITURRI DOKUMENTALAK

Bergarako Udal Artxiboa (BUA)

Bizkaiko Diputazioko Artxibo Historikoa (BDAH)

Casa de Colmenares de Liconako Agiritegia (CCLA)

Euskadiko Artxibo Historikoa (EAH)

Hondarribiko Udal Artxibategia (HUA)

Loiolako Agiritegi Historikoa (LAH)

Portal de Archivos Españoles (PARES)

Sancho el Sabio Funtsa (SSF)

Simancas-eko Agiritegi Orokorra (SAO)

Valladolideko Erret Auzitegiko Agiritegia (VEAA)